

BESTE POLIZIA EREDU BATEN ALDE BESTELAKO LAN BALDINTZEN ALDE

ELA-Ertzaintza · 2018-III-6



Dokumentu honen bidez ELAren Ertzaintzako Sektorialak bere gogoetaren berri eman nahi dio gizarteari, une ekonomiko, sozial eta politikoaren zenbait kontu direla eta. Ez da gogoeta oso luzea izango, baina gure sindikatuak posizioa finkatu nahi du Ertzaintzaren egoerari eta bere etorkizunari buruz kezka-garri deritzegun hainbat puntutan.

1. Euskal poliziaren egoeraren diagnostikoa egiteko oinarriak

Estatuaren inboluzio antidemokratiko eta zentralistak Ertzaintzarengan eragina du, polizia integral den aldetik. PPren gobernuak helegitea jarri du azken promozioetako deialdien aurka, eta gaur egun 500 agente gutxiago ditugu. Gainera, EAEn Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilararen kide kopurua mantendu egin da, eta Gobernuaren Ordezkariek esaten du gehiago behar direla.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailak gaur arte ez du eredu polizialaren inguruko eztabaidarik egin nahi izan. Eztabaida horretan -zeinetan parte hartu beharko luketen indar parlamentario guztiek eta gizarte zibileko organizazioek- oso oinarritzko kontuak jorratu beharko lirateke, eta hauen inguruan ez daukagu gutxieneko adostasunik. Honakoak lirateke kontu horiek:

- Giza-eskubideen defentsa;
- poliziaren botere berezien erabilera (atxilotzea, indarra) eta, horiekin batera, kontu emateko mekanismoak (aginte-kateari, botere legegileari, instituzio independenteei...), eta
- ertzainen hautaketa eta formazioa.

Eztabaida hau lagungarri izan beharko litzateke, besteak beste, gure herrian poliziaren eginkizuna normaltzeko eta azpikultura polizialaren alderdi ilunenak leuntzeko, hauek bestela nagusitu egingo baitira.

Ertzaintzak arazo larriak ditu (aipatutako kopuru urriaz gainera) hainbat arrazoigatik: formazio gabezia, ertzain-etxeen bateratzea eta defizit materialak. Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz ezarritako murrizketek eta austeritate-politikak lan polizialean eragin zuzena dute, eta hau gure gizarteak ez du zertan pairatu. Bestalde, zentralizatzea eta zerbitzuen pribatizatzea erabaki izanaren ondorioz Ertzaintza gizartetik urruntzen ari da.

Murrizte politika hauek kalte zuzena eragiten diete lan-baldintzei: soldata jaitsiera metatua %15ekoa da; gaixotzea penalizatu egiten da, eta horrek sarri lanera behartuta joatera derri-gortzen du, osasunik gabe egon arren; ertzain eskasiak operazio eta ekintzetan eragina du, gizartearen eta agenteen kalterako; lan-egutegiekin eta mugikortasun funtzional zein geografikoaren abusuak dakarte beti prest egon beharra, osasunerako arriskua eta kontziliaziorako eragozpena; lan-arriskuen prebentzio zerbitzuak ez du bere lana behar bezala egiten, batik bat arrisku psikosozialei dagokienez; gehiegizko eginkizun administratiboek, helburu estatistiko eta propagandistiko hutsagatik, ordu asko kentzen diete lan polizialaren zerbitzu publikoari; halaber, Ertzaintzan genero ekitatea ez da inola ere erreala.

Horrenbestez, bereziki kezkatzekoa da gobernuak Ertzaintzaren baitako presio-talde batzuri ematen dieten babesa, edota alderdi batzuk botatzen dituzten kontsignak, horrela hauspotu egiten baitute azpikultura bat, zeinak gure polizia-eredu zibil eta demokratikoarekin zerikusirik ez duen. Bestalde, oro har gizartean eta indar politikoetan eredu polizialari buruzko hausnarketa oso bakana da.

2. Gure polizia eredia

ELAren aburuz polizia, lehenik eta behin, zerbitzu publikoa eta erakunde zibila da, eta bere iparra izan behar da profesionaltasun irizpideak aintzat hartzea eta giza-eskubideak goitik behera errespetatzea.

ELAren ustez zerbitzu publikoa izateak esan nahi du Ertzaintzaren lehentasuna izan behar dela gizartea zerbitzatzeari; gizarte gatazkatsu batean oinarritzko askatasunak (manifestazioa, iritzia, etab.) errespetatu eta babestu behar dituela; herritarren pluraltasun sozial, politiko eta kulturala aintzat hartu; izan lezakeen erabilpen politiko eta alderdikoietik blindatuta egon... Horregatik, zerbitzu publiko hori posible izan dadin beharrezkoak dira independentzia operatiboa, hurreko eredia eta nolabaiteko diskrezionaltasuna.

Polizia erakunde zibila izateak barne-egituran ere isla izan behar du. Aginte-katea eta gainbegiratzea badela eta beharrezkoa dela alde batera utzita, lidergoaren oinarria izan behar da ertzainekiko errespetua. Horregatik, izendapenak ezin dira filia politikoen arabera izan, ezta diziplinatzeko ahalmenean edo aginduen betearazte akritikoan bermatu ere. Afiliazio sin-

dikalerako aukera, bestalde, funtsezko ezaugarria da erakunde zibila den polizia eremuan.

Polizia profesionala izan behar da. Diskrezionaltasuna, gizar-tearekiko hurbiltasuna eta konfiantza elkar indartzeko modua da eginkizun polizialak kontu emateko mekanismo eragingarri eta zorrotzak izatea. Kontu emateak borondate politikoa eskatzen du, eta botere exekutiboak ere horretarako konpromisoa agertzea. Poliziak kontu eman behar die batik bat hiru instantziari: bere aginte-kateari, hiru botereei (exekutiboa, legegilea eta judiziala) eta, azkenik, gainbegiratze-erakunde independentei, esaterako arartekoak edota giza-eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko organizazioak.

3. Egoeraren inguruko proposamen, balorazio eta adierazpenak

ELA-Ertzaintzaren iritziz premiazkoa da polizia eredia ohiko eztabaida politikoan kontutan izatea, hala eremu instituzionalan, nola hedabide eta gizartean ere. Gainerakoan,

ELAk jarraitu egingo du ertzainen bizi- eta lan-baldintzen alde mobilizatzen. Goian aipatutako arazoen ondorioz, Ertzaintzan ordezkartza duten sindikatuek erabateko lehentasuna eman behar diote erreibindikazioari. Halaber, ELAk Jaurlaritzari galdegiten dio has dezala benetako negoziazioa, edukiak dituen, premiaz sartuz segurtasun eta lan-osasun politikak, batez ere arreta arrisku psikosozialetan jarriz.

Gobernuarekiko eztabaida honetan sakoneko debatea egin behar da EAEn gaur lan poliziala egiteko zein baliabide material eta zenbat jende behar den erabakitze aldera; hor sartu behar da ere eginkizun hori behar bezala betetzeko etengabe-ko formazioa, behar diren gai guztiei buruzkoa.

ELA azken urteetan beste sindikatu batzurekin mobilizatu izan da lan-baldintza hobekuntza eskatzeko. Aliantzak ezinbestekoak dira, baina beren potentzial osoa garatuko bada ezinbestekoak dira borondate oneko gutxieneko arauak. ELAren ustez mobilizazio bateratuak ezin dira baliatu aurrez adostu gabeko posizio, kontsigna edo ekintzak sozializatzeko. Horregatik, duela egun batzuk bezala, ELAk ez ditu ontzat ematen alde-bakarreko erabakiak, esaterako bajak era masiboan eskatzea-ri buruzkoa.

ELAk Segurtasun saila eta Jaurlaritza premiazi nahi ditu behar besteko garrantzia eman diezaioten azken urteetan murriztu den ertzain kopurua berreskuratzeari (hain zuzen, galdegiten diogu gehi ditzala egiten ari den 27. promozioko hautapen prozesuko lanpostuak). Estatuarekin beste era bateko talka politikoa behar da. Oro har ekintza poliziala hobetzeko. Baina ertzain kopuruari dagokionez, aipatu beharrekoa da Inocencio Alonso gure lankidea hil zeneko zoritzarreko eguna. San Mames inguruan bizi izan ziren egoeraren antzekoei gutxieneko segurtasunez aurre egitekotan, eta helburua indarraren erabilpen minimoa bada, horrelako operazioetan jende gehiago jarri behar da.

ELAk ez du gomazko piloten erabilera onartzen. Poliziaren botere berezien artean dago indarraren erabilpena, baina erabilpen hori betiere ahalik kontrolatuena izan behar da, eta beti tamainakoa. Gomazko pilotak baliabide merkea dira, istiluei aurre egiteko polizia gutxiago behar baitira, eta horrexegatik zenbaitek oso gustoko dituzte, esaterako austeritate politikaren eta "egurra ematea"ren aldekoek. Gomazko pilotak oso arriskutsuak dira jendearentzat -agerian geratu zen Iñigo Cabacasen heriotzarekin amaitu zen egun beltz hartan-. Arduragabekeria da munizio mota honi buruzko eztabaida berriz hastea. Egia da ere operazioetan ertzain gehiago behar direla, hain zuzen indarraren erabilpen minimoa eta polizien segurtasuna ziurtatzeko.

Gogoeta hau amaitzeko ELA-Ertzaintzak premiazkoa jotzen du zenbait ekitaldiri buruzko eztabaida soziala, besteak beste futbolaren ingurukoak; beharrezkoa izanagatik sektorial eta konfederazio honetatik askoz harago doa. Duela bi aste, Bilbon Europa Leagueko partida jokatu zenean, ikastetxeak itxi eta tabernetako terrazak erretiratu ziren, neurri prebentibo gisa. Bestalde, zenbait hedabidek egun horren bezperatan alarma soziala piztu zuten. Eta polizia (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) zein segurtasun pribatuko langile mordo mobilizatu zen. Eguna amaitzerako lankide bat hil zen.

Badakigu eztabaida hau oso konplexua dela, eta tartean direla hainbat eskubide, interes, are sentipen ere. Baina gure aburuz, guztion onerako eredu polizialaren eta gizarte-ereduaren aldetik lehenetsi egin behar da logika prebentiboa, eta ez logika errepresibo hutsa.